

Xanti Zampirain

AFORISMOAK,
PENTSAMENDUAK, AIPUAK,
SENTENTZIAK, PARADOXAK...

*Zaila da jakitea zergatik idatzi zuen Xantik pentsamendu sorta hau:
denbora entretenitzeko? Ikarari agur esateko ? Jolas egiteko? Terapia
egiteko? Maitatzeko? Bere barrua husteko? Ihes egiteko? Eusteko?
Bizirik jarraitzeko?*

Bizitzan nik egin dudan gauzarik onena
zu begiratzea izan da
Politena, zu ikustea
Ederrena, zu ezagutzea
Zoragarriena, zu maitatzea.

Guk gauza asko ditugu baina ez gara ezeren jabe.

Bizian
garrantzitsua zer den
eta zer ez
zuk erabaki behar duzu
nahi baldin baduzu pertsona izan
izan behar duzu zu
egiaren ikaslea
eta arrazoiaren maisu.

Poeta izatea pertsona izatea baino errazagoa da.

Saia zaitez zoriontsu izaten
Zu zoriontsu ez bazara
Ezin duzu inor
Zoriontsu izaten lagundu.

Uste baduzu ez duzula arazorik,
Kontuz!
Hilda zaude!

Bizitzan denok nahi dugu igo, igo eta igo
Baina gailurra non dago?

Oso garbia da
Suaren ispilua
Garbia benetan
Errealitatearen argia!

Botereak dio: Herria ez dago prestatuta ezer egiteko
Nik diot: Herriak dena egin dezake
Egia agian aldamio batean egongo da.

Irribarrea dohainik eskaini gabe
ezin da sozialista izan.

Nahi nuke argia izan
baina naiz itzala
ez naiz mamia
naiz azala.

Bi demokrazia daude
Bi justizia
Bi bake
Bi mila gezur
Herri bakar batentzat
Eskerrak egia bakarra dela
Euskal Herria bezala!

Zoriona aurkitzeko
Maitasuna bilatu!

Biziaren bidean dagoen lorerik zoragarriena:
Egia
Gure inguruan dabilen arratoirik nazkagarriena:
Gezurra

Bizia ez da egia
Ez da gezurra
Da zu zarena!

Botereak bazkaltzera konbidatzen bazaitu,
Hasi zaitetz pentsatzen gutxienez traidore itxura duzula.

Bankeroek agintzen duten bitartean
Langileak behin-behineko askatasunean egongo gara!

Inoiz zimeltzen ez den lorea egia da!

Poetarentzat
haur baten musua da
saririk ederrena.

Besteak ulertzeko
Gu ulertu behar gara
Horrela ematen baitzaio
Bakeari aukera
Inor ez da jatorra
Zu jatorra ez ba zara!

Lapur txikiak lapurrak dira
Lapur handiak, Jaunak.

Zuriek dena justifikatzen dute
Dena, bere existentzia izan ezik!

Malko guztiak lehortzen dira
Baina bat zurekin batera lehortuko da
Zuk jakingo duzu zein!

Demokraziak eta armadak
Bizia eta heriotzaren kontraesan berberak dituzte!

Egia eta gezurraren artean dago arrazoia
Bizitzeko behar den arrazoia.

Bizia heriotzarena da
Maitasuna, merezi duenarena
Egia, naturarena
Eta arrazoia, denona
Hori jakinda,
Pertsonak
Eraiki behar du
Zoriona!

EGIAREN MINTZOA

Euskaldun arima
Egiaren mintzoa
Itxaropenaren lorea
Naturaren irribarrea
Eguzkiaren maitea
Ilargiaren amorantea
Haizearen jolasa

Historia triste dagoenean
Gernikan egiten du lo
Gernikan egiten du amets!

NIRE BIHOTZEAN GORDEA

Nire biziaren izar zoragarria
Euskadiko bakearen uso gorria
Nire bihotzean gordea
Nire arimaren partea
Ametsaren gosea
Iraultza bukatu gabea
Militantea
Egiaren kolorea
Emea
Gizarte berriaren bermea!

SEHASKATIK NEGURA

Hazia
Asmoa
Udaberriko lurrina
Ametsaren gorputza
Biziaren arnasa
Odolaren pausua
Maitasunaren geroa

Landarea
Berdea
Bideko alaitasuna
Zaurituaren karraxia

Etorkizunaren zutabea
Itxaropenaren kidea
Herriaren kolorea
Biziari omenaldia

Zuhaitza
Itzala
Udazkenaren ahotsa
Orbelaren ispilua
Errealitatearen urratsa
Ametsen hautsa
Azalaren keinu baldarra

Egurra
Samurra
Negu zorrotza
Beldurraren errotan sartua
Heriotzaren izerdia
Infernuaren hezurra
Parrez joan, zaharra

Bizia pasa da
Bizia sua da
Bi alde ditu
Batek erre egiten du
Besteak berotu
Eta zu, ze egur klase zera zu ?
Nolako egurra, halako sua !

DENBORAREN ENTRETENIMENDUA

Hazia, landarea, zuhaitza, egurra
Asmoa, berdea, itzala, samurra
Lurrina, karraxia, ahotsa, negu zorrotza
Arnasa, zutabea, ametsen hautsa, heriotzaren izerdia
Haurraren negarra,
Gaztearen garra,
Azalaren keinu baldarra,
Parrez joan, zaharra!

HAIZEARI ZOTINA KENDU ZION SORGINA!

Munduan izar bat dago, sorgina
Non berdina?
Ezina
Euskaldunen bihotzarekin,
Odolarekin egina

Txikia, polita, garbia
Sentimenduz fina,
Hain desberdina.
Erregina
Zu zera
Egiaren izkina

Lorea bezain ederra
Musika bezain arina
Maiteminduko bazina
Panpina
Non dago mundu zabalean
Zu bezalako jardina?

Begietan daramazu
Itsasoko urdina
Gaztea, gordina
Poxpolina
Bakarra zera kentzen
Haizeari zotina.

Ez zera ximelduko
Baduzu grina
Segi, sorgina,
Birgina
Inori ez diozu eman
Maitemina?

TXANTXANGORRIA KANTARI

Zure amaren ama
Euskaldunen dama
Zuri uso txuria
Historiaren amodio isila

Zure begiek ez dute argirik
Zure bihotza zauriturik
Negarrez sentitzen zaitugu euskaldunok
Baina ez duzu malkorik
Malko gabeko negar bakarra
Historiak maite duen lorea
Naturak mimatzen duen harkaitza
Ekaitzak ito ezin duen arnasa

Isiltasuna mintzatzen hasten denean
Zu besarkatuko zaitu
Hizkuntzen izarra
Arbasoen ibai zaharra!